

BARATZE PARKE SAREKO BIDEO LEHIAKETA

Adi baratzeakideak! Baratze Parke Sareko erabiltzaile eta elkarteek egiten duzuen lana ikusarazteko, balioan jartzeko eta saritzeko helburuarekin **bideo lehiaketa antolatu dugu!**

Oso erraza da. Hemen baldintzak:

- Osatu gutxieneko 4 laguneko taldea eta grabatu zure Baratze Parkean bideo bat, egiten duzuen lana balioan jartzeko.
- BPS sareko Baratze Parke bakoitzean talde partehartzaile desberdinek lehiatzeko aukera izango dute baina pertsona batek ezingo du bi edo talde lehiakide gehiagotan parte hartu.
- Partaideen erdiak gutxienez, Baratze Parke horretako lursailtako erabiltzaile titularrak izango dira.
- Bideoak gehienez 4 minutuko iraupena izango du (kredituak barne).
- Kredituetan, hau da, bideoaren amaieran, taldekideen izen-abizenak eta Baratze Parkearen izena aipatuko dira.
- Bideoa euskara hutsean edo euskaraz eta baratzeetako erabiltzaileen beste hizkuntzak bilduaz egin daiteke.
- Bideoa YouTubera igoko dute partaideek eta ondoren, lehiaketarako ezarritako epe barruan, bideoaren lotura, Datuak Babesteko Legearen dokumentu osatuarekin batera, Kutxa Ekogunera bidaliko dute talde lehiakideek baratzeparkea@ekogunea.eus helbidera.
- **Bideoaren erabilpena:** Kutxa Ekoguneak lehiaketan aurkeztutako bideoak Baratze Parke Sarearen difusiorako baliatzeko eskubidea izango du eta baita Kutxa Ekogunearen komunikazio euskarri ezberdinetan erabiltzeko ere.
- Kutxa Ekoguneak lehiaketa bertan behera utziko du, gutxienez lehiaketan 5 taldek parte hartzen ez badute.

Izen-emate epea eta bideoa bidaltzeko epea: **2018ko uztailaren 25etik irailaren 9 arte egongo da zabalik** (egun horiek barne).

Kutxa Ekoguneak erabakiko du talde irabazlea zein den, lehiaketan ezarritako helburuen betetze maila eta bideoaren orijinaltasuna aintzat

hartuta. Lehiaketako talde irabazlearen izena irailaren 18an jakinaraziko da, Baratze Parke Sareko webgunean eta BPS buletinaren bitartez.

SARIA: Talde irabazleak 12 lagunentzako otordua irabaziko du Kutxa Ekogunearen filosofiarekin bat egiten duen Donostiako MISURA jatetxean. Menua pertsonako 55 €tan baloratuta dago.

Nondik hasi ez dakizuela? Ikusi Tolosako Baratze Parkean egin duten bideoa inspirazio gisa

<https://drive.google.com/file/d/1PiM9YNnY-JpopZNL81wfcFIYJAcFFVm9/view>



ORDEZKARIAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK:

NAN:

BARATZE PARKEA DUZUN HERRIA:

BARATZE PARKEKO LURSAIL ZENBAKIA:

DATU-TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Arduraduna	Kutxa Taldea: Kutxa Fundazioa, Kutxagestion Zerbitzuak SLU (Ekogunea eta Eureka!) eta Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa
Helburua	Baimena ematen dut datuak inprimaki hau betetzearen xede diren eskaera eta jarduerak kudeatzeaz arduratzen diren erakunde edo pertsonen jakinarazteko, eta betiere adierazitako helburuetarako soil-soilik.
Legitimazioa	Interesdunaren baimena
Jatorria	Interesdunaren eskutik jaso ditugu datuak. Inprimaki hau betetzeak berekin dakar bidaltzaileak aitortzen duela guri jakinarazi dizkigun informazio eta datu pertsonalak bereak, zehatzak eta egiazkoak direla.
Hartzaileak	Ez da aurreikusten hirugarrenei datu-komunikazioak egitea, lege-betebeharra dagoenean salbu. Posibilitate hori kontuan hartzen bada, zure baimena eskatuko dugu.
Eskubideak	Sartzea, zentzea, ezabatzea, mugatzea, aurka egitea eta eramangarritasuna, baita Informazio Gehigarrian azaldutako beste eskubide batzuk ere.
Informazio gehigarria	Datuen Babesari buruzko informazio gehigarria kontsulta dezakezu Gure webgunean, http://www.ekogunea.eus/eu/legala/pribazitatea/